

AURREINSKRIPZIOA ETA ONARPENA

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

AURREINSKRIPZIOA	1
ZER EGIN BEHAR DUT IKASPOSTU BAT ESKATZEKO?.....	1
EGIN DEZAKET BESTE PERTSONA BATEN AURREINSKRIPZIOA?.....	1
UNIBERTSITATE BATEAN BAINO GEHIAGOTAN EGIN OTE DEZAKET AURREINSKRIPZIOA?.....	1
NOIZ AURKEZTU BEHAR DITUT HAUTAPROBETAKO EDO PRESTAKUNTZA ZIKLOKO NOTAK?.....	1
NOTAK ETA TITULUA AURRERAGO EMANGO BADIZKIDATE?.....	2
SAR NAITEKE UNIBERTSITATEKO TITULAZIOAREN BIDEZ GRADUA AURTEN BUKATZEN BADUT?	2
EDOZEIN GRADUTAN SAR NAITEKE NIRE LANBIDE HEZIKETAREKIN?	2
AURREINSKRIPZIOAN ESKATUTAKO TITULUETATIK BAKARREAN ERE EZ BANAUTE ONARTZEN, ZER EGIN DEZAKET?.....	2
ONARTUEN ZERRENDAK	3
NOLA JAKINGO DUT ONARTU NAUTEN ALA EZ? LEHENENGO ZERRENDAN INONGO GRADUTAN ONARTZEN EZ BANAUTE, ZER AUKERA DAUKAT HURRENGO ZERRENDETAN ONARTUA IZATEKO?	3
GERTATU OTE DAITEKE ADIERAZITAKO AUKERA GUZTIETAN ONARTUA IZATEA?	3
ZER GERTA LITEKE GRADU BATEAN IKASPOSTUA LORTU ETA HURA EZ BADA AUKERATU DUDAN LEHENENGOA? ETA MATRIKULA EGITEN BADA DUT ETA GERONONARTZEN NAUTE LEG	3
ZERRENDAN 3. TOKIAN BALDIN BANAGO, HORREK ESAN NAHI DU HIRU PERTSONA MATRIKULATZEN EZ BADIRA IKASPOSTUA IZANGO DUDALA ONARTUEN HURRENGO ZERRENDAN?.....	4
BA AL DU BEREZITASUNEN BAT EKONOMIA FAKULTATEKO NAZIOARTEKO TALDEKO ONARPENAK?.....	4
ATALASE-NOTAK	4
URTE BATETIK BESTERA, ASKO ALDATZEN DIRA ATALASE NOTAK?.....	4
EZ AL DA IKASPOSTURIK GORDETZEN EZOHICO ALDIRAKO?.....	5
EZ BANAUTE ONARTZEN NIRE NOTAGATIK, ZILEGI DA 1. IKASMAILA BESTE UNIBERTSITATE BATEAN EGITEA ETA 2. IKASMAILA NUPEN?	5
ESKA DEZAKET UNIBERTSITATEKO TITULAZIOAREN BIDEZ IKASPOSTUA, NIRE NOTA ATALASE NOTA BAINO GUTXIAGO BADA?	5
MATRIKULA	5
NOLA EGIN BEHAR DUT MATRIKULA?.....	5
EGIN OTE DEZAKET BALDINTZAPEKO MATRIKULA BAT, BESTE UNIBERTSITATE BATEAN ONARTUKO NAUTEN ZAIN NAGOELAKO?	6
MATRIKULA BALIOGABETU AL DEZAKET? DIRUA ITZULIKO AL DIDATE?.....	6



AURREINSKRIPZIOA ETA ONARPENA

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

AURREINSKRIPZIOA

Zer egin behar dut ikaspostu bat eskatzeko?

Batxilergotik, heziketa ziklo batetik eta unibertsitate titulazio batetik datozen ikasleek **internet bidez** egin beharko dute [aurreinskripzioa](#), zein gradutara (bat edo gehiago) sartu nahi duten adierazita. Gehienez ere 6 adierazitako dituzte, lehentasun hurrenkeran. Hurrenkera hori erabakigarria izango da (ongi pentsa ezazu hurrenkera, ikasketak aukeratu baino lehen). 25 eta 45 urtetik gorakoek eta lan esperientzia duten 40 urtetik gorakoek ez dute aurreinskripzioa on line egingo. Eskaria bete eta kasuko [dokumentazioa](#) aurkeztu beharko dute.

Batxilergoko ikaslea bazara eta selektibitate-azterketa Nafarroan gainditu baduzu, ez duzu **dokumentazioa** aurkeztu beharko, salbu eta ikaspostua nazioarteko programa batean eskatzen baduzu edo erreserba-kupoaren bidetik sartzen bazara. Gainerako kasuetan, dokumentazioa ezarritako [epean](#) aurkeztu edo igorri beharko duzu.

Gogorarazi nahi dugu aurreinskripzioaren eskabidean, posta elektronikoko helbide bat eta sakelako telefono zenbaki bat jarri behar direla, ikasle [onartuen zerrendak](#) argitaratzen direnean, mezu bat jasoko duzu sakelakoan, onartu zaituztela adierazteko edo, bestela, zerrendan zein tokitan zauden adierazteko.

Aurreinskripzioa internet bidez amaitzen duzunean, mezu elektronikoko bat jasoko duzu, zure aurreinskripzioaren frogagiriarekin. Bertan, aurkeztu beharreko dokumentazioa adieraziko da.

Egin dezaket beste pertsona baten aurreinskripzioa?

Datu akademiko batzuk ezagutu beharko dituzu; esate baterako, ikasleak zein unibertsitatetan eta zein ikasturtetan gainditu zuen selektibitatea, zein modalitatetako ikasgaien azterketa egin zuen eta zein nota izan zituen, sartzeko zein nota duen... Edo heziketa ziklo batetik badator, zein izen duen ziklo horrek, batez besteko zein nota lortu duen... Eta ez ahaztu dagokion dokumentazioa helaraztea Unibertsitatera.

Ez ahaztu posta elektronikoko helbide bat eta sakelako telefono zenbaki bat jarri behar dituzula.

Unibertsitate batean baino gehiagotan egin ote dezaket aurreinskripzioa?

Bai, baina batean baino gehiagotan onartu bazaituzte, bakarrean egin ahalko duzu matrikula.

Noiz aurkeztu behar ditut hautaprobetako edo prestakuntza zikloko notak?

Webgunean eta frogagirian adierazitako [epean](#) aurkeztu beharko dituzu. Izan ere, jakin behar duzu ez dela inongo eskatzailerik onartuko dokumentazioa behar den epean aurkeztu ez duenik. Argi eduki

behar da NUPen ikaspostu bat eskatzeko bi urrats egin behar direla: lehenengo, aurreinskripzioa internet bidez egin; bigarren, dokumentazioa aurkeztu.

Notak eta titulua aurrerago emango badizkidate?

Aurreinskripzioa gainerako ikasleek bezalaxe egin behar duzu. Dokumentazioa aurkezteko modurik ez baduzu, bidal ezazu mezu elektronikoa bat acceso@unavarra.es helbidera, inguruabar hori eta zure datuak adierazita, aurreinskripziorako epea amaitu baino lehen. Aurrerago egiaztatuko da adierazi duzuna. Dokumentazioa eskuratzen duzunean, ahal bezain laster aurkeztu beharko duzu, eta Unibertsitateak hura kontuan hartu ahalko du ikaspostuak esleitzerakoan.

Alabaina, ikasketak irailean amaitzen badituzu, ezin izango duzu dokumentazio hori aurkeztu ezta ezohiko deialdirako ere, zeren eta NUPeko eskolak irailaren hasieran hasten baitira.

Sar naiteke Unibertsitateko titulazioaren bidez Gradua aurten bukatzen badut?

Bi bidetatik eskatu ahalko duzu aldi berean, bietako bat hautatu behar gabe: [unibertsitate-titulazioaren bidea](#) edo [selektibitatearen](#) nahiz [heziketa zikloaren bidea](#). Kontuan izan 2016/17 ikasturtean sartzeko, zure fase espezifikoko kalifikazioak baliozkoan izango direla 2015tik aurrera gainditu bazenituen. 2014koak edo aurrekoak, berriz, ez dira jada baliozkoak.

Ez ahaztu bi bideei dagokien [dokumentazioa](#) aurkezteaz, nahiz eta aurreinskripzioaren eskabidea behin bakarrik bete beharko duzun.

NUPeko ikaspostuen esleipena bi alditan egiten da, ekainean (ohiko deialdia), edo uztailean (ohiz kanpoko deialdia) ikasposturik gelditzen bada, eta aldi bakoitzean eskaerak ordenatzen dira gainditutako unibertsitateko titulazioan lortu den batez besteko nota kontuan hartuz.

Onartzen bazaituzte eta unibertsitate-titulu bat badaukazu, beste titulazioan gainditutako ikasgaien kredituak aitortzeko eskatu ahalko duzu.

Edozein gradutan sar naiteke nire lanbide heziketarekin?

Bai. Lanbide heziketako goi mailako titulu batekin nahi duzun titulaziorako sarbidea izango duzu, sartzeko nota baldin badaukazu. Nolanahi ere, selektibitatearen fase espezifikoa egin nahi baduzu nota igotzeko, gure unibertsitatearen haztatze parametroei erreparatu beharko diezu, sartu nahi duzun graduaren arabera egokienak direnak hautatzeko.

Aurreinskripzioan eskatutako tituluetatik bakarrean ere ez banaute onartzen, zer egin dezaket?

Zilegi da zure intereseko ikasketak beste unibertsitate batean hastea, eta hurrengo ikasturtean ikaspostua eskatzea unibertsitatea aldatzea edo batxilergoa hautaprobekin bideen bidez:

- A. [Unibertsitatea aldatzea bidearen](#) bidez, betekizun bakarra bete behar duzu: 30 kreditu aitortu behar dizkizute ikasketetan. Ikaspostuen % 5 bideratzen da xede horretara, eta epea apiril amaieran bukatzen da. Maiatz amaieran jakiten da bide horren bidez onartua izan zaren.
- B. Aurreko bide horren bidez onartua izan ez bazara, zilegi da batxilergoaren bidez ikaspostua eskatzea. eta ohiko aurreinskripzioa egitea hurrengo ikasturtean, ekaineko bigarren hamabostaldian. Onartua bazara, zilegi da gero kredituak aitortzeko eskaera egitea.

Halaber, zilegi da hautaprobetarako fase espezifikora berriz aurkeztea nota igotzeko.

ONARTUEN ZERRENDAK

Nola jakingo dut onartu nauten ala ez? Lehenengo zerrendan inongo gradutan onartzen ez banaute, zer aukera daukat hurrengo zerrendetan onartua izateko?

- Aurreinskripzioan adierazi zenuen **sakelako telefonoan** mezu bat jasoko duzu.
- Halaber, zure egoera zehatza kontsultatu ahalko duzu Unibertsitatearen **webgunean**; izan ere, bertan ikusiko duzu onartu zaituzten ala ez eta zein tokitan zauden zerrendan.
- Gainera, onartutako ikasleen eta itxaronzerrendetan daudenen zerrenda osoak Iruñeko campuseko **ikasgelategian** zintzilikatuko dira.

Kontuan izan lehenengo zerrendatik hirugarren [onartuen zerrendara](#) mugimendu handia egoten dela eta atalase-nota nabarmen jaits daitekeela. Alabaina, zerrendan daukazun zenbakia oso altua bada eta kasuko karreran ikaspostu gutxi badaude, aukera txikia daukazu.

Gertatu ote daiteke adierazitako aukera guztietan onartua izatea?

Ez. Onartuen zerrenda bakoitzean karrera bakarrean onartzen dira ikasleak, betiere aurreinskripzioan adierazitako hurrenkera beteta. Hori dela eta, ongi pentsatu behar duzu aurreinskripzioan graduak hautatzeari begira jartzen duzun lehentasun hurrenkera.

Zer gerta liteke gradu batean ikaspostua lortu eta hura ez bada aukeratu dudan lehenengoa? Matrikula egiten ba dut eta gero onartzen naute lehentasuna nuen graduán?

- Emandako epean [matrikula](#) egin dezakezu, eta horrela ez duzu ikaspostu hori galduko. Onartuen hurrengo zerrendetan lehenetsitako aukeran ikaspostu bat lortzen baduzu, egindako matrikula baliogabetu ahalko duzu mezu elektroniko bat bidaliz grado@unavarra.es helbidera, NANA gehituta, eta aukera berrian egin ahalko duzu matrikula; bestela, matrikula egin duzun graduari gelditzeko aukera izango duzu.
- Bestela, matrikularik ez egiteko aukera ere baduzu (ikaspostu hori galduko duzu). Zerrendetan geratuko zara zure lehentasunetan ginetik jarri zenituen graduetan.

Adibidez. Onartuen lehenengo zerrenda

	GRADUAK	EGOERA	HURRENKERA ZK.
1.a	Ekonomia	zerrendan	12.a zerrendan
2.a	EAZ	Onartua	
3.a	Gizarte Lana	-	-
4.a	Soziologia Aplikatua	-	-
5.a			
6.a			

Adibidean ikusten den bezala, gradu batean onartua izatean, azpitik jarri zenituen graduak baztertzen dira. Kasu honetan Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza graduari matrikula zintezke, eta hartara segurtatuta daukazun ikaspostu hori lortu.

Begiratu dezagun orain 2. zerrendan.

	GRADUA	EGOERA	HURRENKERA ZK.
1.a	Ekonomia	Onartua	
2.a	EAZ		
3.a	Gizarte Lana	-	-
4.a	Soziologia Aplikatua	-	-
5.a			
6.a			

Orain, Ekonomian matrikulatzeko, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza graduan egin duzun lehenengo matrikula baliogabetu beharko duzu, mezu elektronikoko bat eta zure NAN eskaneatua grado@unavarra.es helbidera bidaliz.

Lehenengo matrikula baliogabetzen baduzu NUPeko beste gradu batean matrikulatzeko, ez duzu ordaindutako matrikularen prezioaz gainera ordaindu beharko, baina beste arrazoi batengatik baliogabetzen baduzu administrazio-tasak ordaindu beharko dituzu beti (50 € inguru) bai eta, baliogabetzearen data zein den, irakaskuntza-tasak ere.

Zerrendan 3. tokian baldin banago, horrek esan nahi du hiru pertsona matrikulatzen ez badira ikaspostua izango dudala onartuen hurrengo zerrendan?

Ez beti, zeren eta jasota baitago aukera dagoela lehenengo onarpen zerrendan dauden ikaspostuak baino pertsona gehiago onartzeko.

Ba al du berezitasunen bat Ekonomia Fakultateko Nazioarteko Taldeko onarpenak?

Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultateko Nazioarteko Taldeetan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan eta EAZ eta Ekonomiako Bikoitzean, gehienez ere 25 ikasle onartuko dira talde bakoitzean. Onartuak izateko, **ingeleseko B2 mailaren edo gorakoko mailaren egiaztatgiri ofiziala** aurkeztu behar dute edo **Unibertsitateko ingeleseko proba** gaitua izan behar dute.

Azterketa hau gaitzen ez badute, hurrengo aukeran izango dira onartuak, eskatutako sarbide nota baldin badaukate.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzeko Nazioarteko Programara sartzeko prozedura berdina da.

ATALASE-NOTAK

Urte batetik bestera, asko aldatzen dira atalase notak?

Web-orrialdean beste urte batzuetako atalase notak kontsultatzeko aukera duzu. [Atalase-notak](#) gradu horretan onartutako azken ikaslearen nota islatzen du; hau da, ez onarpen zerrendako lehenengoarena, baizik eta azkenarena.

Onarpen zerrenda batetik baterako mugimenduak egon litezke, egindako matrikula baliogabetzen duten izangaiak baitaude, eta atalase-nota jaits liteke (ez beti). Esteka honetan dituzu kontsultatzeko [onarpen zerrenda bakoitzeko atalase notak](#).

Ez al da ikasposturik gordetzen ezohiko aldirako?

Ez da ikasposturik gordetzen [ezohiko aurreinskripzioarako](#); ohiko epeko eskabideak tramitatu ondoren hutsik geratu direnak esleituko dira soilik, horregatik, atalase notak ohiko aldian baino handiagoak izan daitezke ohiz kanpoko aldian edo, gerta liteke, halaber, ikasketa batzuetan ikaspostu bakar bat ere ez geratzea aldi honetarako.

Ez banaute onartzen nire notagatik, zilegi da 1. ikasmaila beste unibertsitate batean egitea eta 2. ikasmaila NUPen?

Lehen ikasmaila beste unibertsitate batean egiten baduzu, eta hurrengo urtean NUPen ikaspostua eskatzen baduzu, gutxienez ere 30 ECTS kreditu aitortu behar dizkizute onartua izateko ([ikasketekin jarraitzea bidearen bidez](#)) ezarritako epean.

Eskaerak honako hurrenkera honetan antolatzen dira:

1. lehendabizi, jakintza-arlo bereko jatorrizko ikasketak eta destinoko ikasketak badira (lehenetsia izango dute araututako lanbide berean aritzeko ikasketak egiten dituztenek)
2. eta bigarrena, jatorrizko unibertsitate titulazioaren espedientearen batez besteko kalifikazioa.

Aurreko baldintza betetzen ez bada, beste bide batzuetatik eskatzen ahal da unibertsitaterako sarrera, eskatzen diren baldintzak betez gero, batxilergoa edo prestakuntza zikloa, esaterako, gainditu dituzten ikasketen arabera.

Onartua izanez gero, ondoren kredituen balioa aitortzea eta transferitzea eskatzen ahalko da (prezioa: 40 € gehi aitortutako irakasgai bakoitzaren balioaren % 25) eta, ebatzita daudenean, bigarren ikasmailako irakasgaien matrikula egin.

Eska dezaket Unibertsitateko titulazioaren bidez ikaspostua, nire nota atalase nota baino gutxiago bada?

Adierazitako atalase-nota karrera horretara sartu zen azkenarena da; bide horretarako ikaspostuen % 3 baizik ez dagoenez, atalase-nota hori asko alda daiteke urte batetik bestera.

MATRIKULA

Nola egin behar dut matrikula?

[Internet bidez matrikulatu](#) beharko duzu, onartuen zerrenda bakoitzerako ezarritako epean. Nahi baduzu auto-matrikula Arrosadiko Campuseko Ikasgelategian edo Tuterako Campusean ere egin dezakezu.

Arretaz irakur ezazu webgunean matrikulari buruz argitaratutako informazioa: zein ikasgaitan matrikulatu, zer ordutegi duen talde bakoitzak, zein hizkuntzatan egin dezakezun matrikula ikasgai bakoitzerako, matrikula baliogabetzeko epea...

Matrikula osatua egon dadin dokumentazioa igorri edo aurkeztu behar duzu bi asteko epean, eta epe berean matrikula ordaindu (bankuan zein interneten bidez), automatrikula prozesuan sortzen den ordainketa gutunarekin.

Garrantzitsua da ohartaraztea matrikula epean egiten ez baduzu, lortutako ikaspostua galduko duzula.

Egin ote dezaket baldintzapeko matrikula bat, beste unibertsitate batean onartuko nauten zain nagoelako?

Ez, horrelako aukerarik ez dago. Matrikula arrunta egin beharko duzu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu.

Matrikula baliogabetu al dezaket? Dirua itzuliko al didate?

[Matrikularen baliogabetzea](#) ikasturtea hasi aurretik aurkezten baduzu, irakaskuntza-tasen % 100 itzuliko dizkizute, baina administrazio-tasak, 50 € inguru, ordaindu beharko dituzu. Ikasturtea hasi eta hilabeteko epean aurkezten baduzu, baina arrazoi justifikaturik gabe, irakaskuntza-tasen % 80 itzuliko zaizu.

Ikasturtea hasi eta hilabete iraganda, ez da matrikulen baliogabetzerik onartzen, aparteko kasuetan izan ezik.